

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****AGURAINGO UDALA****Konfiantzako eta kargu publikoen dedikazioa**

Aguraingo Udalak, 2020ko martxoaren 4an egindako osoko bilkura berezian, hau erabaki zuen gehiengo soilez:

1º. Aguraingo Udalak udalbatzako konfiantzakoei eta kargu publikoei dedikazio hauek (alkatearenak 2019ko uztailaren 3ko osoko bilkuran ebatzi ziren) aitortzen dizkie:

KARGUAK ETA KONFIANTZAKO LANGILEAK	DEDIKAZIO KOPURUA	DEDIKAZIOA	LANALDIAREN EHUNEKOA
Udal gobernuko zinegotzia	1	Dedikazio eskusiboa	ehuneko 100
Udal gobernuz kanpoko zinegotzia	1	Dedikazio partziala	ehuneko 50
Udal gobernuko konfiantzako aldi baterako langilea	1	Dedikazio eskusiboa	ehuneko 100

2º. Aurreko puntuarekin bat etorritik, alkatearen esku uztea, kargu publikoak eta aldi baterakoak izendatzeko, hasierako eta bukaerako ebazpenak emateko eskumena.

3º. Oposizioko zinegotzi Raúl López de Uralde Baltasarrek eskatutako dedikazio partziala onestea. Lanaldiaren ehuneko 50ekoa izango da eta lanaldi horren truke urtean 18.641,99 euroko ordainsari gordina jasoko du. Ordainsari hori alkatearen ordainsaria eguneratzen den neurri berean eguneratuko da. Erabakia hartzen den egunaren biharamunetik aurrera aplikatuko da.

4º. 2020ko Aurrekontuko Gastuen Egoeran partida hauek sortzea: 912.100.001 "Kargudun hautatuen ordainsariak" partida eta 912.160.011 "Beste kargudun hautatu batzuen gizarte segurantzak" partida.

5º. Dedikazio partziala duten karguen ordainsariei eta dedikazio araubideari buruzko udalbatzaren erabakiak argitaratzea ALHAOn eta udal iragarki taulan.

Argitaratu egiten da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoa betez.

Agurain, 2020ko apirilaren 15a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES